

EUSKALDUNAK

JOSE LUIS KORTA. Ortzakako entrenatzaileak lau denboraldi daramatza Castroko arraun taldean. Jose Luis Korta iritsi zenean Kantabriako taldea lur jota zegoen. Oriotarrak lan gogorra egin du denboraldiotan, eta urterik urtera jauzi bat eman du. Iaz Castrok irabazi zituen Euskal Liga eta Kontxako bandera. Aurten Euskal Liga ia irabazita dauka, eta faborito nagusia da Kontxako bandera irabazteko.

JUAN MARI LUJANBIO. Pasai Donibaneke entrenatzaileak lehenengo denboraldia du Castroko arraun taldean. Lujanbio uztailaren hasieran iritsi zen Castrora, egun batzuk lehenago Asier Zurinaga patroiz bizkaitarrak Castro utzi ondoren. Lujanbiok erantzun ezin hobe eman dio Jose Luis Kortak beregan jarritako konfiantzari. Titular traineruan.

AGUSTIN MUJIKA. Arraunlari oriotarra Castroko La Marinera arraun taldeko zutabe nagusienetakoa da. Arraunlari beterranoa da, eta Kortak konfiantza handia du haren gain. Mujikak badaki Kontxako bandera irabaztea zer den, Orio eta Castrorekin irabazi duelako. Titularra da traineruan.

UNAI PEREZ. Getxokoak denboraldi bi daramatza Castroko arraun taldean, eta emaitza bikainak lortu ditu. Arraunketa munduan bandera ospetsuak irabazi nahi zituelako joan zen Perez Castrora, eta bete-betean asmatu du. Titular traineruan.

IKER PASCUAL. Zierbenatik Castrora joandako arraunlari barakaldarra da. Titular izan zen Kontxako bandaren lehen jardunaldian.

JAVIER PASCUAL. Kaiku arraun taldean aritutako sestaoarra. De Francisco galiziarren aginduetara aritu zen. Titular izan zen aurreko igandean Kontxako bandaren.

ENEO VAN HORENBEKE. Arko te arraun taldean aritutakoa. Lehen denboraldia du Castron. Titular izan zen igandean Kontxako bandaren lehenengo jardunaldian.

ARKAITZ GALINDEZ. Portugalakoa. Lehenengo denboraldia Castron. Castroko arraun taldeak ordaindu egin behar izan zion Portugalako arraun taldeari arraunlariaren fitxa eskuratzeko.



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

LAN TALDE BIKAINA. Denboraldi osoan erakutsi du Castrok bere arraunlarien indarra. Euskal herritarrek zeresan handia izan dute bertan. Denboraldi hasierako argazkian, Juan Mari Lujanbio, patroia lanetan, eta Agustin Mujika oriotarra, patroia eskuintara.

‘La Marinera’-ko euskaldunak

CASTROKO EUSKAL ARRAUNLARIAK. Jose Luis Kortak Euskal Herriko zazpi arraunlari ditu bere aginduetara Kantabriako ontzi nagusian. Duela urte gutxi inork ez zekien Castroko taldea bizirik zegoenik ere, eta berpiztearen zutabe sendoenak eurak izan dira

Ramon Basaldua | BILBO

Aurtengo Kontxako bandera Kantrabriako bidean da ezelako zalan-tzarik barik. Castroko La Marinera arraun taldeak esku-eskuan dauka 2002ko denboraldiko bandera garrantzitsu eta ospetsuena. Hala ere, ezin da esan Kantabriako arraunketak gora egin duenik Euskal Herrikoaren kaltetan. Izan ere, euskal arraunlari ugari ari dira lanean Castroko arraun elkarteetan.

Duela urte gutxi batzuk inork ez zekien Castroko arraun taldea bizirik zegoenik ere. Hala ere, Castro Urdialesko gizon talde batek bertako arrauna berindartu eta La Marinera gailurrera eramateko ahaleginak egin zituen. Horretarako, Jose Luis Kortarengana jo zuten. Ortzakakoa Orion ari zen lanean, eta inor gutxi espero zuen Orioko arraun taldea utziko zuenik. Jose Luis Kortak, ostera, bere herriko arraun taldea utzi eta Castrora joatea erabaki zuen proiektu erakargarri bati ekiteko.

Korta azeri zaharra da, eta badaki zelan osatu koadrila. Handik eta hemendik arraunla-

riak ekarri eta goi mailako trainerua osatu du. Euskal arraunlariak badute zeresanik Castro egiten ari den lan bikainean. Jose Luis Korta ari da entrenatzaile lanetan, Juan Mari Lujanbio da patroia, eta Agustin Mujika, Unai Perez, Iker Pascual, Javier Pascual, Eneko Van Horenbeke eta Arkaitz Galindez tostetan ari dira.

Kortaren aginduetara, lan gogorra baina esker onekoa

Unai Perez getxotarrak aurtengo bigarren denboraldia du Jose Luis Kortaren aginduetara. Arraunlari beterranoa dugu berau, baina azken urte bietan gainerako urteetan baino garai-pen gehiago eskuratu ditu Castroko *La Marinera* traineruan. Unai Perez gustura ari da Castron. «Jose Luis Korta entrenatzaile zorrotza da. Arraunlari dena eskatzen dio, baina era berean berak ere dena ematen du. Eguneroko lana gogorra da inolako zalantzarik gabe, eta are gehiago Jose Luis Kortaren aginduetara, hark perfekzioa nahi duelako. Askok entrenatzen dugu, eta tentsio handia dago, exijentzia ere handia delako. Nolanahi ere, ni oso gustura

ESANAK

UNAI PEREZ (Castroko euskal arraunlaria)

«Korta zorrotza da. Arraunlariari dena eskatzen dio, baina berak ere dena ematen du era berean»

«Beste euskaldun batzuk ere badira taldean, baina normalean gaztelaniaz mintzatzen gara»

«Argi dago. Kontxako bandera irabaziko ez bagenu, hutsegite historikoa izango litzateke»

nago Castron». *La Marinera*-n ari den euskaldun taldeari dagokionez, Unai Perezek dio ez dutela euskaraz berba egiteko aukera handirik. «Bagara euskaldun batzuk, baina egia esate-

ko normalean gaztelaniaz mintzatzen gara. Juan Mari Lujanbio, Agustin Mujika eta hirurok euskaraz egiten dugu gure artean».

Kontxako banderari dagokionez, Unai Perezek onartu digu aurreko igandeko jardunaldia biribila izan zela Castrorentzat. «Bigarren sailkatuari hogeita bi segundoko aldea kentzeko gauza asko gertatu behar dira. Gu oso ondo aritu ginen, eta aurkariak ez zuten asmatu. Orio eta Pasai Donibaneke arazoak izan zituzten elkarren artean; Urdai-bairen kasuan, baliteke arraunlariak gu harrapatu ahal izateko egin zuten ahalegina ordaindu izana».

Datorren domekako estropadari begira, Castroko arraunlariak garbi diosku estropada irabaztera aterako direla. «Arraunlari guztiok uste dugu ohorezko txanda irabaztera joan behar dugula. Beste mentalitate bategaz bazoaz eta aldearekin espekulatzen hasten bazara, edozein ezusteko gerta daiteke. Hutsetik hasiko gara, eta estropada irabaztera joango gara. Garbi dago Kontxako banderak huts egingo baligu hutsegite historikoa izango litzatekeela».